



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Pirinioetako Hizkuntzak: hurbil eta bereizirik

-Katalanaren, okzitanieraren, aragoieraren eta euskararen ezaugarriak eta bilakaera erakusten dituen erakusketa zabala antolatu du Euskaltzaindiak Baionako Euskal Museoan (Kortsarioen kaia, 37).

-Erakusketa gaurtik eta abenduaren 17a arte izanen da ikusgai, egunero (10:00-18:30). Sarrera urririk izanen da.

-Egitasmo hau Euskaltzaindiak Baionako Herriko Etxearekin eta Euskal Museoarekin 2017rako adostutako ekimenen barnean kokatzen da.

BAIONA (2017-11-20). *Pirinioetako Hizkuntzak* erakusketa inauguratu du, gaur, Euskaltzaindiak. Baionako Euskal Museoak hartuko du egitasmoa, gaurtik hasi eta abenduaren 17a bitarte. Egitasmo hau Euskaltzaindiak Baionako Herriko Etxearekin eta Euskal Museoarekin 2017rako adostutako ekimenen barnean kokatzen da, eta katalanaren, okzitanieraren, aragoieraren eta euskararen ezaugarriak eta bilakaera erakusten ditu, hainbat paneletan banatuta.

Pirinioetako hizkuntzak, euskara izan ezik, latinetik datozen mendeetako prozesu hori dela eta, lurrealdeari begira hurbil dauden baina elkarren artean bereizirik dauden hizkuntzak sortu dira. Literaturaren bidez, hizkuntza horiek aurrera egin dute, eta, aldi berean, aberastu eta beraien muga linguistikoetatik kanpo zabaldu dira, kalitate artistikoa ere irabazi dutela. *Pirinioetako Hizkuntzak* erakusketak haien ezaugarrietako batzuk eta haien historiaren adierazpen garrantzitsuenetako batzuk laburbiltzen ditu.

Horrela, bada, hizkuntza horietako bakoitza erabiltzen duten herrietako bitzia sozialean daukan erabileraren lekukotasunak eskaintzen dira, hala administrazioan, zientzian, irakaskuntzan nola, jakina, literatur genero guzietan daukaten presentziaren adibideak emanet. Akademiak sustatutako erakusketa azaroaren 20tik abenduaren 17a arte egonen da zabalik (10:00-18:30), egunero, sarrera urririk izanen dela.

Les langues des Pyrénées: proches géographiquement mais bien différenciées

-L'exposition d'Euskaltzaindia au Musée Basque (37 quai des Corsaires) présente les caractéristiques et l'évolution des langues catalane, occitane, aragonaise et basque.

-L'exposition débute aujourd'hui et se terminera le 17 décembre, elle sera visible tous les jours de 10 h à 18 h 30. Entrée gratuite.

-Cette exposition s'inscrit dans le cadre des activités prévues pour 2017 suite à la signature de conventions avec la Ville de Bayonne et avec le Musée Basque.

BAYONNE (20-11-2017). Euskaltzaindia a inauguré aujourd'hui son exposition intitulée *Pirinioetako Hizkuntzak* (Les langues des Pyrénées) qui est accueillie par le Musée Basque depuis ce jour jusqu'au 17 décembre. Cette exposition s'inscrit dans le cadre des activités prévues pour 2017 suite à la signature de conventions avec la Ville de Bayonne et avec le Musée Basque. Elle présente sur des panneaux les caractéristiques et l'évolution des langues catalane, occitane, aragonaise et basque.

Les langues des Pyrénées, à l'exception du basque, sont dérivées du latin. Ce processus séculaire a produit des langues géographiquement proches mais parfaitement différenciées. Leur littérature a contribué à leur évolution et elles se sont enrichies ; elles se sont diffusées hors de leurs propres frontières linguistiques et ont gagné en qualité artistique.

L'exposition *Pirinioetako Hizkuntzak* résume quelques-unes des caractéristiques des langues pyrénéennes et leurs manifestations les plus importantes au cours de l'histoire.

Cette exposition offre ainsi des témoignages de leur usage dans la vie sociale des habitants des zones où elles sont parlées, proposant des exemples de leur présence dans l'administration, les sciences, l'enseignement et bien sûr dans divers genres littéraires. Cette exposition présentée par Euskaltzaindia sera visible tous les jours de 10 h à 18 h 30 du 20 novembre au 17 décembre. Entrée gratuite.

Idiomas de los Pirineos: cercanos pero diferentes

-Euskaltzaindia inaugura una nueva exposición en el Museo Vasco de Baiona, donde se muestran las características y la evolución del catalán, el occitano, el aragonés y el euskera.

-La muestra permanecerá abierta hasta el 17 de diciembre, de lunes a domingo (10:00-18:30). La entrada será gratuita.

-Esta nueva iniciativa es fruto de los acuerdos de colaboración que mantiene Euskaltzaindia con el Ayuntamiento de Baiona y con el Museo Vasco (Kortsarioen kaia, 37) de la capital labortana.
